

# BALIOZKO PROPOSAMENAK

Atal honetan gure zerbitzua zein den azalduko dugu.

Azken urteetan, atzeritik datozen familia etorkinen kopurua geroz eta handiago dela ikusi da. Familia hauek normalean baliabide murriztuak dituzte, eta horrek eguneroko beharrak asetzea ekiditen diete. Gu hezkuntzarekin zerikusia duen harira joko dugu; izan ere, gertutik jotzen dugun gaia da. Ikastolan oso maiz ikusi izan dugu atzeritik etorritako umeek euskara hizkuntzarekin arazo nabarmenak edukitzen dituztela hizkuntzaren ezjakintzasunaren ondorioz. Arazo hau askotan gertatzen zela ikusteak, pena eta amorrua ematen zigun. Hori dela eta, guk atzerriko familien seme-alabei zerbitzu bat eskainiko diegula erabaki dugu.

Ikasle horiei gure ama hizkuntza, hau da, Euskara, erakutsiko diegu ondoren eskolara joaterakoan, hainbat ikasgaitako klaseetan hizkuntzarekin erlazionaturik dauden zailtasunak murriztu edo ekiditeko. Zerbitzu honen helburu nagusia umeek euskara oinarri sendo bat edukitzea da eta egoera edo arazoa gutxitzea.

Gure zerbitzua Zelai Ariztin, Zumarragan, kokatuko da, hala ere, Zumarraga nahiz Urretxuko ikasleak etorri daitezke. Lokala eraikinaren lehenengo solairuan egongo da.

Guk ez diogu garrantziarik emango diruari. Bokazioz egingo dugu, hau da, soldatarik gabe. Beraz, guztiz dohainik izango da, ezer ordaindu gabe. Gure zerbitzuak Euskaltegi itxura izango du baina bereziagoa izango da. Bereziatasun hau, erabat dohakoa dela da, lehen esan bezala. Gainera, pertsona bakoitzaren maila ezberdina kontuan izango dugu eta horren arabera ariketa ezberdinak prestatuko ditugu, horrela progresio onuragarria eta nabarmena ikusteko. Guk erabiliko dugun metodologia, ikastolan ematen denaren den bezalakoa izango da, hau da, ariketak gehi irakurketa. Jolasak ere burutuko ditugu; izan ere, jolasen bitartez, klaseak atseginagoak eta dibertigarriagoak egiten dira.

Klaseak bi mailatan banatuko dira: lehenik, DBH-tik gorako umeak 15:00-17:00 egingo dituzte klaseak, eta hauen ondoren, Lehen Hezkuntzatik beherako umeak 17:00-18:00 egingo dituzte. Denbora pasa ahala, urtebete gutxienez, ikastolan egiten dituzten ariketak egiteko gai izango direla frogatuko dugu. Klaseak gehienez 15 pertsonen osatuta egongo dira. Oraingo egoera ikusita, COVID-19-aren ondorioz, hainbat osasun-neurri hartuko ditugu, ikasleak, irakasleak eta gu, arriskuan ez egoteko. Musukoa derrigorrezkoa izango da, eta adituek gomendatutako neurriak hartuko ditugu.

Saioak astelehenetik ostiralera izango dira eta gehienez bi ordukoak izango dira. Lehenengo saioak ikasleekin konfiatza hartzeko erabiliko ditugu: jolasak, hizketaldiak... eginez, ikasleak eta irakasleak harreman estua edukitzeko.

Eskuragarritasunari dagokionez, erakunde hau enpresa kontzertatua izango da; hau da, diru laguntzak beste enpresa kontzertatuetatik eta erakunde publikoetatik jasoko ditugu. Gure zerbitzua ezagunagoa egiteko kaleetan, dendetan... "Zuzen" dendaren laguntzaz egindako posterrak jarriko ditugu, publizitatea egiteko helburuarekin. Poster hauek informazioa edukiko dute herritarrek gure zerbitzuaren berri izateko.

Zerbitzu honetan irakasle rola edukiko duten pertsonak, unibertsitatean dauden ikasleak izango dira, hots, magisteritza, integrazio soziala, euskal filologia... ikasten ari direnak. Horrela praktikak egiteko aukera emango diegu eta biak irabazten aterako gara.

Aurreko guztia horrela izanik gogo handiz jardungo gara lanean proiektua ondo atera dadin eta gure helburua bete dadin.